

ERABAKIA, GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ FORMALIZATZEN BAITA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK UDA IKASTAROAK FUNDAZIOARI (UNIBERTSITATEAREN BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUA) EGINIKO ZERBITZU ENKARGUAREN ERANSKINA, ENKARGUAN MIKROKREDENTZIALEI LOTUTAKO BEREZKO IKASKETAK BARNE HARTZEKO.

Leioan, 2024ko uztailaren 23an.

Montse Maritxalar Angladak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreorde gisa, unibertsitate horren izenean eta ordezkartzez, eta eskuordetu zaizkion eskumenez baliatuz (UPV/EHUko errektorearen ERABAKIA, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearen eskumenak eskuordetzeari eta haren gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteari buruzkoa [2021eko otsailaren 12ko EHAA]), honako hau

ADIERAZTEN DU:

LEHENA. Erabaki honen bidez eranskina gehitu zaio 2023ko uztailaren 11ko erabakiari, zeinaren bitartez formalizatu baitzen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Uda Ikastaroak Fundazioari (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) eginiko zerbitzu enkargua, berezko ikasketak kudeatzeko eredu baten proiektu pilotua kudeatzeko.

BIGARRENA. - UPV/EHUK mikrokredentzialen prestakuntza eskaintza berria ezarri behar du, halaxe eskatzen baitu Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioak, eta, 2026ko bigarren seihilekora begira, eskaintza horretan mugarri eta helburu jakin batzuk beteak izan behar dira estatu mailan. Honako hauek dira, zehazki:

- CID 468 mugarria; hau da, Ekintza Plan bat onartzea, Unibertsitateen Ministerioak, interesdunekin kontsulta eginda, sortutako mikrokredentzialak garatzeko eredu bat sortzera bideratuta. Planak honako helburu hauek izango ditu: unibertsitateak etengabeko ikaskuntzara bideratutako erakunde bilakatzea; biztanle helduen eta enplegatzaileen arteko eskaria bultzatzea; mikrokredentzialen kalitatea eta egokitasuna sustatzea; ikasketak egiteko aukera berdintasuna bultzatzea; eta prestakuntza pertsonalizatu eta malgua jasotzeko bideak sortzea.
- CID 469 helburua; hau da, 15 ECTS kreditu baino gutxiagoko 60.000 mikrokredentzial gutxienez sortzea (estatu mailan), askotariko 1.000 prestakuntza ekintzarekin edo gehiagorekin lotuta. Horietan, pertsona bakoitzak unitate bat baino gehiago aukeratu ahal izango du. Prestakuntza ekintzen bitartez, lan esparruan eskatzen diren ezagutza eta gaitasun espezifikoak bermatuko dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoan, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak akreditatutako 2610 mikrokredentzial ziurtatu egon behar dute gutxienez.

HIRUGARRENA. - 2023ko uztailaren 11ko enkargu horretan xedatutakoari erreparatuta, UPV/EHUK uste du Uda Ikastaroak Fundazioa, unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua den aldetik, aproposa dela mikrokredentzialen kudeaketa ereduak garatzeko,



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO
ERREKTOREORDEZTA
VICERRECTORADO DE POSGRADO Y FORMACIÓN
CONTINUA

esperientzia handia baitauka bizitza osoan zeharreko prestakuntza eta irakaskuntza eskaintzen. Edonola ere, inguruabar honek ez du eragingo UPV/EHUko Uda Ikastaroen antolakuntzan, ezta Uda Ikastaroak Fundazioak egun martxan dituen bestelako berezko jardueretan ere.



Adierazitako guztiagatik, honako hau da

ERABAKIA:

Lehena. - UPV/EHUK Uda Ikastaroak Fundazioari (unibertsitatearen bitarteko propio pertsonifikatua) egindako enkargua hedatzea, erabaki honen eranskinean ezarritakoa aintzat hartuta.

Bigarrena. - Erabaki hau UPV/EHUREN kontratatzailearen profilean argitara dadila agintzea.

Hirugarrena. - Erabaki hau Uda Ikastaroak Fundazioari helaraztea, bere kontratatzailearen profilean argitara dezan.

Montse Maritxalar Anglada
UPV/EHUko GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO
ERREKTOREORDEA

ERANSKINA

MIKROKREDENTZIALAK - PROIEKTU PILOTUA

Kontuan hartuta mikrokredentzialen prestakuntza eskaintzarekin lotuta ez dugula inolako esperientziarik, aurreikuspen hau egin den egunean ez dakigu zer nolako irismena izan duen prestakuntza horrek. Hortaz, mikrokredentzialen prestakuntza proposamen bakoitza kudeatzeko orduan, aldagai bitan oinarritutako estimazio bat proposatzen da enkarguaren kostua aurreikusteko:

- Kreditu akademikoak.
- Matrikula kopurua.

MATRIKULAK	1-5 ECTS	6-10 ECTS	11-14 ECTS
10	1.400,00	1.800,00	2.200,00
20	1.600,00	2.000,00	2.400,00
30	1.800,00	2.200,00	2.600,00
40	2.000,00	2.400,00	2.800,00

Adibidez: 15 matrikula izan dituen 8 kredituko prestakuntza baten fakturatzeko kostua 2.000 €-koa izango litzateke.

2024ko urria eta abendua bitartean tipologia ezberdinetako 25 prestakuntza abiatzea aurreikusten da. Hortaz, tarifa 25 prestakuntzatarara estrapolatzen badugu, tartea ezarrita, honako hau izango da matrizea:

MATRIKULAK	1-5 ECTS	6-10 ECTS	11-14 ECTS
10	35.000,00	45.000,00	55.000,00
20	40.000,00	50.000,00	60.000,00
30	45.000,00	55.000,00	65.000,00
40	50.000,00	60.000,00	70.000,00

Hori dela eta, kostua 70.000 €-koa izan daiteke gehienez. Hala eta guztiz ere, 52.500 €-koa da kalkulaturako batezbestekoa.

Gastuak justifikatzeko orduan, Mikrokredentzialen Planaren justifikazioari dagokionez Eusko Jaurlaritzarekin ezarri dena hartuko da oinarri gisa; horretarako, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak aurrekontu jakin bat du esleituta 2024. urterako, mikrokredentzialak martxan jartzeko premiak betetzen dituena.

